

Verdiren 'Un ballo in maschera', Baluarten

OPERA • Giuseppe Verdiren *Un ballo in maschera* opera (Mozorro dantza bat) Iruñera helduko da lehen aldiz aste honetan: ostiralean eta igandean emango dute, Baluarte jauregian. Guztira 170 pertsonak baino gehiagok parte hartuko dute; tartean, Sergio Escobar tenorea, Maria Pia Piscitelli sopranoa, Arthur Rucinski baritonoa, Maria Jose Montiel mezzosopranoa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta AGAO abesbatza lirikoa.

Giuseppe Verdi musikagile italiarrak 1850eko hamarkadan ondu zuen *Un ballo in maschera* opera, bere bizitzako aldirik emankorrenetako batean. Garai hartan konposatu zuen, halaber, bere trilogiarik ezagunena, *Rigoletto*, *Il trovatore* eta *La traviata* obrek osatutakoa.

Operak Gustavo III.a Suediako erregearen hilketa du oinarrian. Stockholmeko operan hil zuten, 1792an, mozorro dantza batean. «Maitasun nahasteek, sorgin profezia beltzek eta askatasun idealek elikatzen duten arriskuz, sineskeriaz eta zorrigaitzez betetako opera da hau», esan dute Baluartekoek.

